

Magal berde honetatik

Gizarte ilun honetatik ihesi
zure magalera iritsi naiz,
hor beheko keen kateek
sortu dizkidaten zauri gaiztatuak
sendotzeko esperantzetan.
Zure belardian galdu naiz
hiriaren sasi-zaharretatik aske,
gizarteak harrapatu ez nazan
bere metalezko atzaparrekin.

Ametsek leku bat hartzen dute
zure aranetan barrena,
bake haizea isiltasuna zaurituz,
garbitasuna arnas dezaket
birikak askatasun usainez beteta.

Gizakiaren aztarna bakarra
zure lepoan iltzatu zuten
gurutze zuri hori duzu,
gailurrik altuenean
zeru urdinetan edanaz
hodeiak txokorik gabe dituen.
Barkamena eskatu behar diot
zure zementuzko parasitoari,
gaurkoan ere bizkarrez nago eta,
nondik datorren ahaztu nahirik.

Inori esateko gai izan ez naizena,
oihukatzeko kemena etorri zait
zure tontorrean,
odol usten ari ninduen
barruak jaten ari zitzaidana
atera da kanpora, atera da,
zure larretan barrena galdua da.

Hor beheko itzaletatik ihesi nabil,
ahoko irri guztiak bahitu dizkidan
harresiz eraikitako gizarte horretatik.
Baina behingoz,
lasai lo hartu dute nire kezkek,
haizeak kulunkatzen duen
sehaska berde honetan,
zure besoen artean etzanda
nire amesgaiztoak usteldu baitira.
Eta ez naiz beldur
bihar zer gertatuko ote den,
ondotxo badakit eta
ez dudala lanbrorik aurkituko

zukanako bidean,
ezta malkarrik ere gure artean,
eta nire arnasestu guziak galduko dira
zure bizkarrean nagoenean.

Udaberriak bidali ditu
zure etxetik, neguko hotzak.
Zeneraman soineko zuria
galdu da eguzkiaren labeen,
gonape elurtu hori
askoren hilobi,
ate joka itzuliko da
abenduko lehen malutekin.
Baina ordu arte!
zeruak ez du etsairik izango,
egunez txoriak kantari
gauetz izarrak dantzari
denak zure menpe makurturik.

Nire begi nekatuak
esnatu dira lo sakonetik,
eta eskaintzen didazun
bailara zabal honetan
betirako galdu zaizkit,
azken malko baterako denbora utziz.
Kolorez jantzitako jaialdi hau,
irteteko giltzarik onartzen ez duen
nire oroimenean espetxeratua da.

Agurtzeko garai ere bada,
denborak ihes egin dit eskuetatik
haurrei erreka arrai txikiek bezala.
Eta nire hankek ez dute indarririk
berenezko bidea hasteko,
baina bihar ere itzuliko naiz
enaren gisara,
ezin baitut, ametsez,
josi duzun sareetatik ihes egin.

Beheraka noa, eta haizeak
zure gonbidapen oihuak
ozenki ekartzen dizkit belarrietara,
ahots ezti horrek
sakon zulatu du nire arima.
Bihar arte, mendiak.

Ufffff, ifffff, ufffff...